



HIRU(3)

NERI HARI

Myriam Perez Cazabon





HIRU(3)

ERALDATZEEI, BEGIETARA BEGIRATZEARI ETA AUKERA BERRIEI BURUZKOAK

Gure gizartearen eta gure lanbidearen ezaugarririk ohikoena ezegonkortasuna denean, HIRU(3) aukera eta bide berriak barne hartzeko proiektu gisa planteatzen da, bai sorkuntza-prozesuei dagokienean, bai aurkezpen-formatuei dagokienean. Bi dira, beraz, proiektu honen helburu nagusiak: esperimentazioa eta hedapena.

HIRU(3) proiekturako motibazioa, konpainiaren egungo beharretatik eta aurreko sormen-prozesuetan izandako esperientzietatik dator. Seriazio bat balitz bezala, konpainiaren lanak ideia nagusi beraren inguruan daude sustraiturik: **komunikatzeko beharra.** HIRU(3)-k, begiradaren eta entzumenaren premian sakondu nahi du, komunikazio hori eraikitzeko ahaleginean.

Hizkuntza koreografiko zehatz batean sakondu ondoren, non, inprobisaziotik abiatuta, dantzarien presentzia eta momentuan eraikitzeko gaitasuna nagusitzen diren, egitura narratibo sendo batean oinarriturik garatzen da pieza.

HIRU(3) proposamen esperimentala da. Elkarbizitzarako hainbat guneren agertokia, non dantza garaikidea, testua, musika esperimentala, bideo-proiekzioak eta argazki-instalazioa elkarrekin hartu-emanean diren, irmotasun handiko emaitza eszenikoa eraikiz, zeina zirraragarria eta poetikoa den aldi berean. Diziplina artistiko desberdinen arteko hibridazioaren bilaketa da.

Proiektua

Sorkuntzaren eta transmisioaren alorrak aldi berean uztartzen dituen dantzaren profesionala izanik, HIRU(3) proiektuak, sorkuntza modu berrietan murgiltzeko, arriskatzeko eta ikertzeko bidea eskaini dio Myriam Perez Cazabon (Irun) euskal sortzaileari, barne zein kanpo-sareak indartze eta hedatze aldera zuzendurikoak. HIRU(3), NERI(H)ARI izenpean ekoizten duen lehen proiektua da, non, indar, heldutasun profesional eta berezitasun handiko dantzariez eta disziplina ezberdinetako artistez osaturiko talde lokal batekin lan egiten duen. HIRU(3)-k elkartrukerako eta lankidetzarako bide berriak indartzeko eta sendotzeko helburua du.

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin eta Donostia Kultura, Gipuzkoako Dantzagunea, Azala Kreazio Espazioa eta Espacio Punto de Fugaren babesa eta elkarlanarekin ekoitzia, **HIRU(3)**, 2021eko ekainaren 26an, Donostiako Egia K.E.ko Gazteszena aretoan estreinatua izan da, bere gain ere bilduz, beregandik eratorriak diren **HIRU(3)_Bidean** formatu anitz eta txikiagoko proposamenak eta **"EZ BAT, EZ BI, BAIZIK ETA... HIRU(3)"** mugimendu laborategia.




"Batez ere, dantzariengan bere bi alderdiak, mugimendu-ekintzailearena eta transmititzailearena, uztartzean dut interesa.
Hau da, eszenan, dantzariak baino, pertsonak ikustean.

Horregatik nire irmotasuna, dantzariak dantzatu behar ez duenean zer gertatzen den eta koreografiaren atzekaldean zein/zer izkutatzen den ikertzen; eszena geldoenak eta isilenak zaintzen"

Myriam Perez Cazabon

Sinopsia



Gertaerek izaera ziklikoa izan ohi dute. Hasiera, korapiloa eta amaiera. Edo hasiera berri bat... Gertaera orok bere ondorioa baitu.

HIRU(3) eraldatzeei buruz, elkarri begietara begiratzeari buruz, eta aukera berriei buruz ari zaigu. Joan-etorrien infinitu errepikapenen islada, non trantsizio zirrikituetako itxaroteek berezko indarra duten.

Bidean aurkitzen dira galderak, hautaerak, gorpuzkerak eta gertaerak. Bidean ematen dira etengabeko eraldatzeak, egokitzeak eta eraikitzeak. Eta erabaki guztiak...

Zimendu zehatzetatik abiatuta, moldagarria eta eraldagarria den proposamen esperimentala, unean-unekoa.

Etengabeko eraikitzean dauden bizikidetza espazioak.



DENBORA, ESPAZIOA eta GORPUTZAK izanik koreografiaren zutabe soil eta indartsuak, **HIRU(3)**, dantzaren arkitekturataz ari zaigula esan dezakegu.

Eta bizitzaren gertaera ororen izaera ziklikoaren harira, hiru ideia unibertsal ditu, oinarrian, gidari: HASIERA, KORAPILOA eta AMAIERA.

"...edo hasiera berri bat.
Gertaera orok
bere ondorioa baitu"

Paisaia anitzak erakusten dituzten akzioz osatutako pieza da **HIRU(3)**, osotasun koherente eta poetiko batean bildua. Ikuslearen interpretazio askerako lekua uzten duten paisaiak, bere sentiberatasuna eta imajinarioa deitzera bultzaturiko ikusle aktiboa, hau.

Presentzian oinarritutako lana izanik, dantzariek beren izaera pertsonalena erakusten dute, publikoarekiko distantzia murriztuz eta identifikazio zubiak sortuz.



Erreferentziak

SILENCIO | RAZÓN DEL TEATRO - Juan Mayorga


"*Y el silencio es parte de la lengua. Nos es necesario para un acto fundamental de humanidad: escuchar las palabras de otros*"


"*El teatro nos educa en la escucha, en lo que las personas hacen con las palabras y en lo que las palabras hacen con las personas. Y si el teatro es el arte del encuentro, tambien es el arte del silencio, sin el que no habría poesía*"

EL TIEMPO REGALADO - Andrea Köhler

"El que espera imagina lo venidero, a menudo contando con la opción del vacío, por lo que la espera es nuestro primer acto cultural"

"Saber esperar, esperar es la condición previa a todo entendimiento. Esperar es, así, nuestra primera práctica en el pensamiento utópico, en la resistencia"





Fitxa

Iraupena: 55'
Estreinaldia: 2021/06/26 (Gazteszena)
Dantza garaikidea + disziplina anitzak
Eszena | Ez-ohiko espazioak

Ideia, zuzendaritza: MYRIAM PEREZ CAZABON
Argazki instalakuntza: AITZIBER ORKOLAGA
Dantzariak: LEIRE OTAMENDI, ENEKO GIL, OLAIA VALLE, BEÑAT URRETABIZKAIA, OIHANA VESGA
Soinu-giroa: AINARA LEGARDON, MYRIAM RZM, ANDER FERNANDEZ
Soinu ekoizpena: KARLOS OSINAGA
Argiztapena: SERGIO GARCÍA
Proiekzio irudiak: KENSA PRODUKZIOAK - ASIER GARCIA
Kanpo begirada: MIZEL THERET, IDOIA ZABALETA, BERTHA BERMUDEZ
Jantziak, espazio eszenikoa: MYRIAM PEREZ CAZABON
Ekoizpen-lagutzailea: OIHANA VESGA
Ekoizpena eta banaketa: MYRIAM PEREZ CAZABON

Dirulaguntza: EUSKO JAURLARITZA - KULTURA SAILA, SORTUTAKOAK 15
Babesa eta elkarlana: DONOSTIA KULTURA, GIPUZKOAKO DANTZAGUNEA, AZALA KREAZIO ESPAZIOA, ESPACIO PUNTO DE FUGA

Loturak

TEASERRAK
HIRU(3)_TeaserA.mp4 on Vimeo
HIRU(3)_Teaser laburra.mp4 on Vimeo

BIDEO OSOA: DANTZA LANA + INSTALAKUNTZA
HIRU(3)_osoa.mov (vimeo.com)

NERI(H)ARI

MYRIAM PEREZ CAZABON

Dantzan bere lehen urratsak Irun eta Donostia artean ematen ditu. Dantza garaikideko goi-mailako ikasketak Rotterdameko CODARTS-en burutzen ditu.

2004 ezkeroztik dabil dantza arloan, sortzaile, dantzari eta irakasle moduan, musika (Mursego, ElleBelga), antzerkia (Hika Teatroa), zinea (Akelarre), argazkilaritza (Nagore Legarreta, AitziberOrkolaga), disziplina anitzetako instalakuntza (Larraitz Torres, Rqer-Eva Villar), eskultura (ChillidaLeku Museoa), eta, nola ez, dantza (Ai Do Project,Kukai, Red Atalak 2.0, Node, Doos Colectivo) bezalako arte desberdinekin elkarlanean aritzeko grina azpimarratuz.

Interes pertsonalek eta norbere hizkuntza koreografikoan sakontzeko beharrak bultzaturik, 2016an konpainia modura bere ibilbideari ematendio hasiera, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzari eta Gipuzkoako Dantzagunearen eta Donostia Kulturaren elkarlanari eta babesari esker. Myriam Perez Cazabonek bere ekoizpenak **NERI(H)ARI** izenpean egokitzea erabakitzen du, non proiektu anitzak eta disziplinartekoak batzen dituen.

NERI(H)ARI da, dantza, pertsonen emozio-zirrikituen isla bezala; isiltasuna, komunikazio bide bezala; eta geldotasuna, mugimendu forma bezala, ulertzen dituen gunea, batez ere, presentzia eta begirada azpimarratuz.

Bere lana **dantza garaikide biluzia** bezala definitzen du, hau da, fina, gardena eta zehatza. Eta disziplinartekoa, bere transmisiorako eta komunikaziorako balioa indartuz.



Lan-talde artistikoa eta teknikoa

link bioak



MYRIAM PEREZ CAZABON

Ideia, zuzendaritza. Ekoizpena
Dantzaria



OIHANA VESGA

Ekoizpen-laguntzailea
Dantzaria



AITZIBER ORKOLAGA

Argazki instalakuntza



LEIRE OTAMENDI

Dantzaria



ENEKO GIL

Dantzaria



OLAIA VALLE

Dantzaria



BEÑAT URRETABIZKAIA

Dantzaria

Lan-talde artistikoa eta teknikoa

link bioak



AINARA LEGARDON

Soinu-giroa



MYRIAM RZM

Soinu-giroa



ANDER FERNANDEZ

Soinu-giroa



KARLOS OSINAGA

Musika ekoizpena



SERGIO GARCIA

Argiztapena



KENSA PRODUKZIOAK - ASIER GARCIA

Proiekzio irudiak



MIZEL THERET

Kanpo Begirada



IDOIA ZABALETA

Kanpo Begirada



BERTHA BERMUDEZ

Kanpo Begirada

www.nerihari.com

nerihari@outlook.com

+34 607 838 235

Instagram

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN


donostia kultura

dantza gunea

AZALA
KREAZIO ESPAZIOA

PUNTO DE FUGA

HIRU(3)



YRIAM PEREZ CAZABON

NERIHARI